



EEPF
Euskadiko Euskal
Pilota Federakuntza

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.
Federación de Pelota Vasca de Euskadi.

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

EMAKUMEZKOETAN 3 URRE ETA GIZONEZKOETAN URREZKO 1 ETA 3 BRONTZEREGIN BUKATU TXAPELKETA EUSKAL PILOTA SELEKZIOAK

Emakumezkoetan hiru modalitatetik hirurak irabazita sailkapen orokorreko txapeldun eta gizonezkoetan modalitate guztietan dominak lortuta sailkapen orokorreko azpitxapeldun geratu da Euskal Pilota Selektzioa.

Txapelketa ezin hobea gure neska mutilena Freixo de Espada á Cintan, modalitate guztietan dominak lortuta. Txapelketarik txapelketa markak hausten doa gure selektzioa eta CIJB erakundeak antolatzen dituen txapelketetan erreferente bilakatu da. Atzean geratzen da 2015. urtea, Oiartzungo Txost Pilota Klubak, kotxea hartuta Herbehereetako Franeker hirira egin zuen bidaia Llargues modalitateko Kluben arteko Champions txapelketa jokatzeko. Bertan, euskaldunak ezagutu ere ez gintuzten egiten eta gaur egun nazioarteko erakunde honetako selektzio erreferentea bilakatu gara. Nola ez, aurreko urte arte gure hautatzailea izan den Jose Mari Mitxelenari aitortza, bera gabe guzti hau ez zelako posiblea izango.

Gaurko goizean Llargues modalitateko azken fasearekin hasi dugu eguna eta gure mutilek Herbehereen aurka jokatu dute finalerdia. Partidoa 1-0 irabazten hasi diren arren, zoritxarrez, partidoa ez da asko luzatu eta Herbeherarrek nagusitasunez eraman dute norgehiagoka 1-6ko markagailuaz. 3-4.postuko lehian atzoko ligaxkako aurkariak errepikatu dira. Euskal Selektzioa eta Belgika. Atzo baino estuago joan da partidoa eta hainbat erremontadaren ostean, azken setean erabaki da garailea; Euskal Selektzioak 6-5eko markagailuaz brontzezko domina eskuratu.

Arratsaldean, txapelketa honetako antolatzaileen modalitatearen txanda izan da, Pilota Portugalدارra hain zuzen ere eta bai emakumezkoetan zein gizonezkoetan urrezko domina eskuratu Euskal Pilota Selektzioak. Gizonezkoak, finalerdia Belgikaren aurka 20-6 irabazi dute eta finalean Balentzia 20-6 mendean hartu dute. Ikustekoa izan da, gure pilotariak horma ziur gabe horretan izan duten jokoa, bertako jendea harrিতuta utzita. Emakumezkoek aldiz, atzoko egunean finalera sailkatzea lortu zuten eta finala atzoko taldeko fasean galdu zuten Ingalaterrako nesken aurka jokatu dute. Argi utzi dute atzokoa istripu txiki bat izan zela eta 20-14 irabazita txapelketako hirugarren urrea lortu dute.

Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu hautatzaile lanetan aritu diren Patri Espinar eta Eneko Uriberri eta nola ez Euskal Pilota Selektzioako pilotari guztiei, jokatu dutenei eta hautaketatik kanpo geratu direnei, benetan eskerrik asko.



EEPF
Euskadiko Euskal
Pilota Federakuntza

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.
Federación de Pelota Vasca de Euskadi.

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

LA EUSKAL PILOTA SELEKZIOA FINALIZA EL CAMPEONATO CON 3 OROS, 1 PLATA Y 2 BRONCES EN CATEGORÍA FEMENINA Y MASCULINA

La Euskal Pilota Selekzioa ha quedado campeona de la clasificación general en féminas tras ganar tres de las tres modalidades y subcampeona en categoría masculina tras conseguir medallas en todas las modalidades.

Inmejorable campeonato el de nuestras chicas chicos en Freixo de Espada á Cinta, con medallas en todas las modalidades. Nuestra selección va batiendo récords campeonato tras campeonato y se ha convertido en un referente en los campeonatos que organiza la CIJB. Atrás queda el año 2015, el viaje que hizo el club de Pelota Txost de Oiartzun a la ciudad holandesa de Franeker en coche para disputar la Champions de clubes de la modalidad de Llargues. Allí ni siquiera nos conocían a los vascos y hoy en día nos hemos convertido en la selección referente de esta organización internacional. Como no podía ser de otra manera, reconocer al que hasta el año anterior ha sido nuestro seleccionador, José Mari Mitxelena, porque sin él todo esto no hubiera sido posible.

Esta mañana hemos comenzado el día con la fase final de la modalidad de Llargues y nuestros chicos se han enfrentado a los Países Bajos en la semifinal. Aunque los nuestro han empezado ganando 1-0 el seleccionado de Países Bajos ha mostrado su superioridad y se ha impuesto rápidamente con un contundente 6-1. En la lucha por el 3-4 puesto se ha repetido el partido de la liguilla de ayer: Euskal Selekzioa y Bélgica. EN un partido con varios altibajos en el marcador, el partido se ha decidido en el último set, así consiguiendo nuestra selección el bronce con un ajustado 6-5 en el marcador.

Por la tarde, ha sido el turno de la modalidad de los organizadores de este campeonato, la Pelota Portuguesa, y tanto en categoría femenina como masculina la medalla de oro ha sido para la Euskal Pilota Selekzioa. Los chicos han ganado la semifinal a Bélgica 20-6 y después han ganado la final a Valencia 20-6. Ha sido de ver, el juego que han tenido nuestros y nuestras pelotaris en esa pared llena de incertidumbre, dejando sorprendidos a la gente local. Las chicas, en cambio, lograron clasificarse para la final el día de ayer y han jugado la final ante el equipo inglés que les ganaron en la fase de grupo de ayer. Dejan claro que el de ayer fue un pequeño accidente y tras ganar 20-14 han logrado el tercer oro del campeonato.

En nombre de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi queremos agradecer a las seleccionadoras Patri Espinar y Eneko Uribe y cómo no a todos los y las pelotaris de la Euskal Pilota Selekzioa, a los que han jugado y a los que se han quedado fuera de la selección, eskerrik asko.